Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera
Yanguas y Miranda, 27-1.
31003 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es



**EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK ONESTEN DITUEN ABUZTUAREN 28KO 130/2015 FORU DEKRETUAREN III. TITULUAREN ALDAKETA.**

JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren III. titulua Euskararen Nafar Kontseiluari buruzkoa da. Euskararen Nafar Kontseilua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren parte-hartzerako organoa da eta Nafarroako Gobernuari aholkuak eta proposamenak egiten dizkio euskararen plangintzaren eta sustapenaren arloetan.

Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 legegintzaldirako akordio programatikoan jasota dago Euskararen Nafar Kontseiluaren osaera zein eskumenak zabaltzeko konpromisoa.

Era berean, Euskararen I. Plan Estrategikoak (2016-2019) jasotzen du, behin osaerari eta eginkizunei dagokienez Euskararen Kontseiluan egin nahi diren aldaketak gauzatu ondoren, Kontseiluak rol berri bat hartu behar duela eta praktikan Plan Estrategikoaren Zuzendaritza Batzorde bihurtu.

Beraz, Euskararen I. Plan Estrategikoa garatzeko Euskararen Nafar Kontseiluak hura bultzatzea eta gainbegiratzea behar da, eta horretarako beharrezkoa da aipatutako organoaren eginkizun kopurua handitzea.

Bestalde, planteatu da Kontseilu horren osaera aldatzea, Nafarroan euskararen alorrean lan egiten duten entitate, talde eta erakundeen parte-hartzea ahalbidetzeko.

**MODIFICACIÓN DEL TÍTULO III DEL DECRETO FORAL 130/2015, DE 28 DE AGOSTO, POR EL QUE SE APRUEBAN LOS ESTATUTOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO EUSKARABIDEA - INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA.**

MEMORIA JUSTIFICATIVA

El Decreto Foral 130/2015, de 28 de agosto, por el que se aprueban los estatutos del organismo autónomo Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera dedica su título III al Consejo Navarro del Euskera, que es el órgano de participación de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y el órgano de asesoramiento y propuesta al Gobierno de Navarra en materia de planificación y fomento del euskera.

El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra en la legislatura 2015-2019 recoge el compromiso de ampliar tanto la composición como las competencias del Consejo Navarro del Euskera.

Así mismo, el I Plan Estratégico del Euskera (2016-2019), recoge que una vez que se hagan efectivos los cambios que se pretenden abordar en el Consejo del Euskera en cuanto a su composición y sus funciones, este Consejo ha de tomar un nuevo rol y debe convertirse en la práctica en un auténtico Comité de Dirección del Plan Estratégico.

Por tanto, el desarrollo del I Plan Estratégico del Euskera necesita ser impulsado y supervisado por el Consejo Navarro del Euskera lo que hace preciso aumentar el número de funciones que el citado órgano ha de desempeñar.

Por otra parte, se plantea la modificación de la composición de dicho Consejo, con el fin de permitir la participación de las entidades, grupos e instituciones que trabajan en torno

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera
Yanguas y Miranda, 27-1.
31003 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

euskarabidea

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen Abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren III. Tituluaren aldaketa honek izenburu hau du: Parte-hartze Organoak. Euskararen Nafar Kontseilua. Titulu honek biltzen duen xedea da euskararen errealitatean eragitea, beti ere, euskara sustatzea helburua duten kultura elkarteen edo gizarte ekimeneko entitateen zein euskararen eta euskal kulturaren eremuan izen ona duten pertsonen iritzia kontuan hartuta.

Horiek horrela, Euskararen Nafar Kontseiluaren osaera zabaltzeko eta beronen eginkizunak emendatzeko beharrezkoa jotzen da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren III Titulua aldatzea.

al euskera en Navarra.

La presente modificación del título III del Decreto Foral 130/2015, de 28 de agosto, por el que se aprueban los estatutos del organismo autónomo Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, titulado Órganos de participación. El Consejo Navarro del Euskera/Euskararen Nafar Kontseilua tiene por objeto responder a la nueva realidad existente, teniendo en cuenta la opinión tanto de diferentes asociaciones culturales y entidades de iniciativa social cuya finalidad es el fomento del euskera, como de diversas personas de reconocido prestigio en el ámbito del euskera y la cultura vasca.

En virtud de lo expuesto, con el objetivo de ampliar la composición del Consejo Navarro del Euskera con el fin de dotarlo de mayor participación social, y aumentar las funciones de dicho Consejo, se considera necesaria la modificación del título III del Decreto Foral 130/2015, de 28 de agosto, por el que se aprueban los estatutos del organismo autónomo Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera.

Iruñean, 2017ko uztsailaren 27an / Pamplona, a 27 de julio de 2017

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
DIRECTOR GERENTE DE EUSKARABIDEA-INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA




Mikel Arregi Pérez